

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozio batekin hasteko diru kantitate bat izatea beharrezkoa da, hasieran dauden gastuak kudeatu ahal izateko. Horretarako, talde honetako partaide bakoitzak 1000€ jarriko ditugu ezer egiten hasi aurretik, hau da, guztira 5000€ izango ditugu gure zerbitzua aurrera eramateko.

Hasteko, webguneko informazioa osatzeko idazle baten lana ezinbestekoa da. Kasu honetan, guk geuk egingo dugu lan hori, testu formal eta ulerterrazak egiteko gai ikusten dugulako geure burua. Modu honetara, hauek idazteko pertsona bat kontratatzearen beharra saihestuko dugu eta honekin batera, dirua. Paula, Amaya eta Uxurik dute trebetasun hori.

Ondoren, plataforma bera sortzeko informatikan trebea den eta webguneei buruz ezagutzak dituen pertsona baten laguntza ere behar izango dugu. Eginkizun hau betetzeko ere, ez dugu taldetik kanpoko pertsona baten beharrik izango, trebetasun hori Annek duelako.

Enpresak egiten dituen jarduera guztiak legalak izatea oso beharrezkoa da, inolako isunik edo gaizki-ulerturik ez izateko. Hau eramateko pertsona lortu dugu jadanik. Honek zuzenbideko ikasketak bukatu zituen orain dela 2 urte, beraz prestakuntza aproposa du. Familiakoa denez eta lan konplexuegia ez denez, muxu truk egingo du.

Jarraian, alde batetik etengabeko informazio bilketa egiteko eta "filtro" bat pasatzeko gaitasunak ere baditugu gure taldean. Bestetik hitzaldiak egiteko ikastetxeekin kontaktuan jartzeko erraztasunak dituen beste pertsona bat ere bada. Honek hitz egiteko erraztasuna du.

Azkenik, taldekide guztiok erabiltzen ditugu sare sozialak, beraz, hauen kudeaketaz edonor arduratuko litzake, bai enpresaren ordenagailutik eta bai bakoitzaren mugikor edo apartu elektronikoko pertsonaletatik.

Hori guztia dela eta, beharrezko baliabide gehienak taldean aurkitzen dira eta dohainekoak izango dira.

